

## **AURREKONTU PARTE HARTZAILEEI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko ekainaren 11n Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Maiatzaren hasieran, Udalak egituratu dituen kontseiluak (batzuk aipatzeagatik, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseilu Sektoriala, Donostiako Ingurumen Kontseilu Sektoriala, Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala edo Oroimen Historikoaren kontseilua) deituak izan ziren, puntu bakarra lantzeko helburu: "2019ko udal aurrekontuetarako proposamenak jasotzea". Egunak pasatu ostean berriz ere kontseilu horietako kideek mezu berria jaso zuten, bilkurak bertan behera uzten zirela esaten ziena. Handik egun batzuetara aurrekontuak behingoz parte hartzaileak izateko metodologiaren berri eman zen.

Bakoitzak helburu propioak dituela, kontseilu horiek guztiak helburu bat partekatzen dute, herritarren parte hartzea erraztea eta sustatzea, gehienetan parte hartze kolektiboa, elkarte eta sektore bakoitzeko ordezkariak bidez. Kideek beren denbora ematen diote hiriari, ez soilik Udalari, beren ezagutza eta gaitasuna hor enplegatuz. Udal Gobernuak parte hartze hori sustatzeko hautua egiten duela esan arren, horrelako deialdiak egitea, gero bertan behera uzteko, ez da kolektiboak zaintzea eta beren parte hartzea zaintzeko modua, are eta gehiago Udal Gobernuak egun haietan egin zuen aurkezpenaren edukiaren mamia deialdiok egin zituen egunetan jakingo zuela kontuan hartuta.

Bat etorri zen Udal Gobernuaren hemen azaldutako kritika eta azalpenekin, eta bideratuko zutela ere esan zuen zinegotzi ordezkariak, baina ez da hala izan: aurrekontuak ez dira kontseiluetan landu. Proposamen indibidualen bozketa indibidualak (urriaren 8-21) egin aurretik iritzi kolektiboak ezagutu beharrekoak dira, herritarrek bozka ematerakoan sektoreetan inplikaturik dauden iritzi kolektiboak kontuan hartzeko aukera izan dezaten. Horregatik Udal Gobernuak kontseiluak deitzea ezinbesteko pausua da, bertan diren kolektiboen iritzia eta proposamenak jasotzeko eta horren berri herritarrei emateko.

Aurrekoarekin batera, eta ikusita bideratzen ari den sistema erabat birtuala dela, alegia, ez dagoela harreman zuzenik herritarrekin, komeni da Udal Gobernuaren auzo eta herrietako ordezkariekin biltzea, beren interes eta kezka zuzenean entzuteko, dauden asmoak eta proposamenak konpartitu eta zuzenean eztabaidatzeko. Horregatik, auzoetako iritzi kolektiboak jasotze aldera, auzokako bilerak egitea aurreko guztiarekin bateragarria izanik, prozesuan aurrekusi behar den beste fase bat izan beharko litzateke aurrekontu parte hartzaileen praxian sakontzeko. Bilerok auzoan bertan eginez

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

gero, aukera emango dute auzo elkarteekin, auzoetako kolektiboekin zein norbanakoekin elkarrizketak bideratzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio lehenbailehen aholku kontseilu sektorialak deitzeko, beren iritziak eta proposamenak jasotzeko eta horren berri publiko egiteko, herritarrek aurrekontuei buruz egingo den kontsultan bozka ematerakoan sektoreetan inplikaturik daudenen iritzi kolektiboa kontuan hartzeko aukera izan dezaten .
- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio auzoetako iritzi kolektiboak jasotze aldera auzokako bilerak egiteko bertan auzo elkarteekin, auzoetako kolektiboekin zein norbanakoekin elkarrizketak bideratzeko.

Donostian, 2018ko irailaren 21ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia